

Korsikako arazoak iraungo du

• TXOMIN PEILLEN •
[EUSKALTZAINA]

Urutuegi joan gabe, Korsika Genovak Frantziari 1768an saldu uhartea da. Urte beretan Pasquale Paoli buru korsikarrak asaldatu, jazaritu ziren. Pasquale «*Babbu di la patria*» aberriaren eta korsikar nazionalismoaren aitak, uharteko konstituzioa aldarrikatu zuen. Idazki hori Rousseau filosofoak miresten eta eredu ematen zuen; baina frantses erregearen 30.000 soldaduek Korsikako errepublika garaitu zuten Ponte Novu herrian. Garai haietan bonapartetarrek alde izan zituen. Frantsesak uharteaz jabetu eta erregea frantses kortezainei lur banatzen hasi. Paolik Ingalaterrara ihesi egin zuen, baina bitartean 1774an bi bider jazaritu ziren uhartetarrek.

Berriro 1789-1795 bitartean Paoli itzuli eta Consulta biltzarra antolatu zuen eta ingeles babespean herriaren berritza, nazio eraikuntza abiatu. Zoritxarrez Bonaparte familiako, Napoleon Bonapartek Frantziaren eta bere buruaren aldeko joko egitea erabaki zuen. Frantsesak itzuli eta mende eta erdiz hango nazio sendimendua lokartuko da. Frantses jakobinoak loeragile ematean oso trebeak ditugu. 1.- Diru asko emanaz hautetsiei. 2.- Frantziar fortuna egitea eskainiz eta erraztuz; orduetik Polizian, Armandan, Justizian, postu onenetan zer nahi korsikar badago. Halaber ministerioetan eta zenbat abokatu eta ministro! 3.- Bitartean uharteko ekonomia ez zen garatu eta geroago uhartetarren bizimoldeak gaitzotu. 4.- Frantziako armadarekin Aljerian eta Indotxinan ikasi eta ikusi zuten korsikarrak haserre jarri ziren, turismoaren aitzakian, uharteko lurrrak nazioarteko kapitalisten eskutara joaten zirela ikusi zuten. Nazionalismoa berpiztu zen. 5.- Ontzia gaintu zen Frantziak Aljeriatik ekarri kolonoi herrian lur, mahasti,

barañondo eta diru emanik. Eta frantses zango-beltz haiek Marokotik langileak ekarri zituzten, herritarrek baino merkeago zirelakoan. UPCko Alfonsi jaunak kontatu zigun nola aita bere 3 hektarea mahasti frantses haiei saltzera behartua izan zen, ezin biziz.

Beraz ontzia gaintu Aleria herrian Edmundo Simeoni anaiarekin herriko ardo kooperatibaz jabetu zen. Jendarmekin eduki tiroketan bi polizia gizon hil ziren.

Korsikarrak eta biolentzia

Korsikan ohorea dela, edo gaizkileen arteko arazoak betidanik armak erabiltzen dira. Simeoni biolentziaren kultura horretaz kezkatu indarkeria horren aurka hitz egiten hasi zen eta UPC (*Unione di populu Corsu*) bakezalea sortu. Alderdikideei eskatu zitzaizkien poltsikoan armarik gabe ibiltzea, izan ere korsikar ala frantses nazionalista izan, uhartetar gizon gehienek, kalera ateratzen direnean, arma sakelatan sartzen dutelako.

Hori kontatu zidan Simeonik berak Aleriako UPCren kongresuan, IA iparralderen izenean, Korsikan egon nintzenean.

Concuoltako mugimenduek IRAK eta ETAK baino atentatu gehiago egiten dute, eta herri txikiagoan; gehienetan ez dira jendea jokatzeko. Dinamita eta arma beharrak eman ditu arma trafikatuarekin harremanetan sartzera, baita erraztasunarengatik berak arma trafikatuarekin bilakatzen. Trafiko horren ondorioz Korsikan hiltzen diren gizon gehienek anaiarteko eta abertzale arteko erasoetan bizia galtzen dute. Izan ere hasierako bi jendarme eta Erignae prefeta izan ezik politika arrazoiengatik ez dute inor hiltzen.

Korsikarrak eta ekonomia

Korsikako ekonomia, lehengai zir-

kuituetatik bazter egon da beti. Gaurko kompetentziarekin uharte horretako ekoizpenak ez dira errentagarri. Frantses estatuak eta batik bat Europak eman laguntzarekin ere nekez bizi da, beraz aspalditik uhartean ia fiskalitatek ez dago; esate baterako, ondare zergarik ez dute ordaintzen, eta nekazariek ez dute errentaren gaineko zergarik.

Halatan ere Bruselatik eta Parisetik datozen erabakiek herri horretako ekonomia suntsitzen dute, horregatik hango korsikar nazionalistek eta frantses alderdietako askok beren legeak egiteko eskubidea eskatu, eta lehen ministroarengandik lortu dute. Zoritxarrez, Frantziar jakobino gehiengoak dago (omen %55) eta Euskal Herri departamentuaren kasuan bezala konstituzio kontseilu antidemokratikoaren mamua eta 1789ko printzipioak altxatuko dituzte.

Lehen Ministroaren saioak arriskatzen pikuetara joatea, eta aurretik bazekien halaxe izango zela, Chevenement, izan daitekeen jakobino amorratuena, barne-ministro aukeratu zuenean. Jospinek korsikarrei eta euskaldunei sozialistak dialogoari irekiak direla erakutsi nahi izan die, eta itxurak eman hitz emana, hitz bete izango zela; zoritxarrez komediak ez du iraungo. Frantziako gutiengoek ulertuko al dute?

Politika borroka horretan korsikarrei ahaztu zitzaizkien kulturaz arduratzea eta batik bat hizkuntzaren erakustea. Ez dute Iparraldean egin dugun legez, ikastolaren antzeko sistemarik sortu. Euren ohituraz Parisek dirua eman arte ez dute ezer egin. Literatura eta liburugintza ez dira Iparraldeko maila tristera iristen. Kooperatibismoa berriz Arrasaten edo Lapurdiko Hemen-Herrikoa taldearekin ikasi dute. Korsikako arazoa gurea bezala ez da ez bihar ez etzi argituko.

IBAN ZALDUA

Peñaflorida



Hori da nire batxilergo garaiko institutuaren izena; oso fama onik ez zuen Donostiako familia burges-nahien artean, irakaskuntza pribatuaren zale amorratuak betiere. Baina han topatu nuena oso bestelako gauza izan zen.

Hango irakasleak ezagutu ditudan onenak iruditu zaizkit beti, eta esker on bezela gogoratzen ditut Arregi, Forradellas, Izpizua, Mendoza, Mori, Soria, Valverde eta abarren eskola haiek. Ikasleen arteko giroa bizia zen eta, letretako geletan bederen, oso kreatiboa.

Han nengoela Casas senadorearen hilketa gertatu zen; Peñafloridako ikasleontzat gertakari zirraragarria izan zen, gure ikaskide baten aita zelako Casas. Atentatuaren aurkako manifestazioa antolatu genuen, eta oroitzen naiz HB inguruko ikasleekin batera prestatu genuela buruko pankarta: bortxaren erabilera onartuta ere, argi utzi nahi izan zuten bazezgoela mugarik. Orduan bezala, bortxaren erabilerean aurkakoa naiz; are gehiago, bortxa horri mugarik aitortzen ez zaion une hauetan.

Peñafloridan Mikel Azurmendi ere izan nuen irakasle, eta miresmenegogoratzen dut, aipatu ditudan beste horien antzera. Badoa Euskal Herritik, eta amorruta ematen dit. Azken urte hauetan gero eta urrunago sentitu naiz haren iritzi eta adierazpenetatik, baina haren esanak beti errespetuz jasotzen saiatu naiz. Beste batzuek ez dute halakorik egin nahi izan, eta errazegi ahaztu dute hitzari soilik hitzaz erantzun beharko litzaikeela.

Mikel Azurmendik ezin izan du gehiago: lehengo eguneko bonba ez da jasotzen duen aurreneko eraso. Badoa, eta nik esan dezakez gero soberan dago; gehienez ere, Joseba Zulaikak idatzi dion jendaurreko eskutitz zintzoarekin bat egin («... honela ez da posible eztabaida intelektualik, ez ezer. Hau bi hamarkadatan zehar lantzen aritu garen guztia- ren porrota da», DV, VIII-19), eta isildu.

Bai, memoria ariketa bat da bizitza, hein batean behintzat. Mikel Azurmendiren ihesa edo Zumarragako atentatua bezalako gertakariak gero eta zailagoa bihurtzen ari diren ariketa bat.



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefona, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Indarkeria eta gaitzespenak

Gaitzespenek ez dute ezertarako balio. Gizon batek bere emakumea jipoitzen eta indarrez hiltzen badu, berehala hasten dira egunkarietan talde guztietako gaitzespenak agertzen. Baina, horrekin, ez da ezer lortzen. Gaitzespen antzuak dira.

Inori ez zaio indarkeria gustatzen. Inori ez zaizkio hilketak gustatzen. Gizon horiek ez dira errudunak. Beren ekin-tzak bikoteen baitan dauden konfliktuen ondorio latzak dira. Konfliktu horiek konpontzen badira, gizon horiek ez dira

behartuta egongo indarkeria erabiltzera. Ez dira hiltzaileak, ekintzaileak baizik. Eta konfliktu horien ondorioak ez dituzte emakumeek bakarrik jasaten, askotan ekintzak egin ondoren, gizonak beren burua hiltzen baitute.

Altruistak deituko nieke nik (Patxi Zabaletak eta Gaizka Aranguren beste ekintzaileei deitzen dieten bezala), horren ondoren beren askatasuna eta batzuetan beren bizia galtzen dutelako. Eta altruista horiek kartzelan sartzeak ez du ezer konpontzen. Errepresioa ez da soluzioa. Bikoteen artean dauden konfliktuak konpondu behar ditugu, eta, horre-

la, berez desagertuko da bere ondorio den indarkeria. **Jon Berastegi** • IRUÑEA

Ramon Elosegiri gure omenaldi xumea

Hil honen hasieran auto istripu malapartatu batek Ramon Elosegiren bizia eramane du. Lerroon bidez, omenaldi xume gisa, naturaren aldeko egitasmo askotan ibilitako biologoa gogora ekarri nahi dugu.

Ingurugiroaren alde mugitzen garenok Ramonen laguntza estimagarria beti izan dugu ondoan. Ramonek zenbat

ezaugarri nabarmenduko genituzke, besteak beste, eskuzabaltasuna, dinamismoa, apaltasuna eta tinkotasuna. Batetik, maila handiko profesionala izanik bere jakinduria esku zabalik erakutsi digu, behar izan dugun bakoitzean bai mintzaldietan, eta bai beste hainbat eta hainbat ekimenetan.

Aurreko guztia gutxi izan balitz bezala, bere tinkotasuna azpimarratzea mezezi du. Izan ere, inoiz ez da Administrazioaren eta agintarien aurrean belaunikatu. Zintzo jokatu du lanpostua arriskuan izanda ere. Horregatik guztia-gatik, utzi duzun hutsune handia ingurugiroaren alde borrokatuz betetzen ahaleginduko gara. Hau da gure esker ona adierazteko dugun modua. **Juanma Hernandez** • (Ekologistak Martxan taldearen izenean)